

PROZEDURAK

- Pieza bakoitza era egokian erabiltzea, espazioan irudikatzea, haren kokalekua eta mugimenduak eta notazioa ikastea, eta ikaskuntza era autonomoan egitea.
- Xake-lengoiari lotutako kodeak zuzen interpretatzea eta erabiltzea, baita xakeko lexiko espezifikoa ere.
- Xake-partida bat idatziz zuzen deskribatzeko idazkera aljebraikoa erabiltzea.
- Partidako faseak identifikatzea.
- Idazkera aljebraikoa erabiliz partidak errepikatzea.
- Jokaldi bakarrean oinarrizko mateak egitea.

JARRERAK

- Araudiak, lehiaketa-legeak eta arerioaren aurreko jokabide-arauak errespetatzea.
- Isiltasuna balioestea eta errespetatzea, kontzentrazio-iturria baita, eta elementu ezinbestekoa xake-partida batean.
- Irabaztean zein galtzean jokabide egokia izateko interesa, kirol-legez onartzea partiden emaitzak, eta pozez eta adiskidetasunez partekatzea garaipen eta porrotak.
- Lana ondo egiteko interesa eta gustua, bai eta eskolan egindako jarduerak era antolatuan, garbian eta argian aurkezteko ere.
- Xake-munduarekiko interesa eta jakin-mina.
- Metodoak xakean aurrera egiteko duen garrantzia balioestea.
- Xakearekiko sentsibilitatea eta zentzu estetikoa garatzeko interesa.